


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

LETREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE LETRAS

Gradu Amaierako Lana

Hizkuntza gutxituen estandarizazio prozesuak: euskararen eta galizieraren kasuak hizpide

Xabier Carril Sánchez

Zuzendaria: Ibon Manterola Garate (Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila)

Euskal Ikasketak

2022-2023

Laburpena

Euskara batuak berrogeita hamabost urte bete dituen honetan, inoiz baino biziago dago euskararen estandarizazioaren afera, eta hortik dator, hain zuzen ere, lan hau. Euskara hizkuntza gutxitua izanik, hala aztertzen da lan honetan beronen estandarizazio prozesua, galizierazko aldaera estandarren eraikuntza ere hizpide izanik. Prozesuok zein berezitasun dituzten aztertzea da helburua, horretarako, estandarizazioaren eta honekin loturiko zenbait kontzepturen azalpen bat dator lehenik. Ondoren, esanguratsu diren zenbait ezaugarri hartzen dira aintzat: literatur tradizioa eta honetan jardundako idazleek egindako ekarpenak, estandarizazio prozesuan jazotako eztabaidak edo gorabeherak, adostasuna edo adostasun eza eta horrek egunera arte eragindako bide bateratu zein bereziak eta, azkenik, hiztun berriek aldaera estandarrekiko duten iritzia aipatzen da, horietan aurki baitaitezke aldaera estandarren erabilerarekin lotutako “autoritate” edo “autentikotasun” bezalako hainbat kontzeptu esanguratsu.

Lan honen xedea, azken batean, estandarizazio prozesuetan, eta, bereziki, hizkuntza gutxituen estandarizazioetan, eragina izan dezaketen faktoreak azalratzea, eta, azkenik, euskararen eta galizieraren kasuen arteko erkaketa edo ondorioztatzea egitea. Ahalik eta ondorioztatze leial eta fidagarrienak egiteko, estandarizazioan aditu diren hainbat egileren hitzak hartu dira ardatz, esaterako, Haugen (1987) edota Kloss (1967), eta horien bueltan eraiki da lan hau. Bestetik, zuzenean hizkuntza gutxituen estandarizazioaz mintzo diren zenbait hizkuntzalariren hitz hartu dira oinarri, *Lenguas minoritarias en Europa y estandarización* (2018) lanean D'Andrés Díaz-ek edo Fernández Rei-k utzitako hitzak adibidez. Horretarako, estandarizazioaren inguruan teorizatu dutenez gain, euskararen zein galizieraren kasuei berariaz heldu dieten egileen esanak ere dakartza lan honek (Zuazo (2005); Carvalho (1974)).

Hizpide diren bi hizkuntza gutxituen estandarizazioen ezaugarriak edo berezitasunak eta bi prozesuen arteko aldeak eta antzekotasunak dira azken emaitza gisa agertzen dena, beti ere, hizkuntza bietan alderdi berdinei erreparaturik, alderaketa ahalik eta egiantzekoena izatea baita helburua; izan ere, badira biek ala biek partekatzen dituzten ezaugarriak, baina bata bestetik aldentzen duen ezaugarriak ere bada. Ondorioz, aztergai diren bi hizkuntzetan errepikatzen diren fenomenoak daudela esan daiteke, eta horiexek, desberdintasunek bezalaxe, beren estandarizazio prozesuan eragina dutela ere ondoriozta daiteke.

AURKIBIDEA

0. Sarrera.....	4
1. Estandarizazioa.....	4
2. Euskararen kasua: anabasaren amaieran Arantzazu.....	7
2.1. Aurrekariak.....	7
2.1.1. XX. mendera arteko loraldi geldoa.....	7
2.1.2. Euskara batuaren atarian, XX. mendearen lehen erdia.....	8
2.2. Arantzazurako bidea: Baionako biltzarra eta ondorioak.....	10
2.3. Mitxelenaren txostena (1968).....	11
2.4. Arantzazuko Biltzarra: euskara batua jaio da.....	13
2.5. Geroa: hiztunen harrera, iritzia eta egungo egoera.....	14
3. Galizieraren kasua: bi poloren arteko talka amaigabea.....	16
3.1. Aurrekariak.....	16
3.1.1. XIX. mende amaiera: ezerezetik <i>Rexurdimentoren</i> loraldira.....	16
3.1.2. XX. mendearen lehen erdia.....	17
3.2. 1970eko hamarkada erabakigarria: ILG eta RAG.....	19
3.3. Berrintegrazionismoa eta NOMIG 82 arauak: dibortzio baten hastapenak.....	20
3.4. Geroa: hiztun berrien ikuspegia, autoritate falta eta estandarraren eragina.....	21
4. Kasuon erkaketa: antzekotasunak eta aldeak.....	22
5. Ondorioak.....	24
6. Bibliografia.....	26

0. Sarrera

Lan hau estandarizazioaren inguruko zenbait zertzelada ematera dator, baina, bereziki, estandarizazio prozesuak euskara eta galiziera bezalako hizkuntza gutxituetan izan ditzakeen berezitasunak aipatzera dator, estandarizazioak bi hizkuntzotan izan dituen ibilbide eta emaitzak erkatuz. Ainbat arlok edo alderdik hizkuntza horien estandarizazio prozesuetan izan dituzten eraginak aztertu nahi dira, horien patuan erabakigarri izan daitezkeelakoan. Ildo horretatik, lan honek hiztun berrien iritzia jorratzea helburu du ere, ondorengo zenbait ataletan sakonduko den gisan, horien jarduna eta aldaera estandarrekiko pertzeptzioa ezinbestekoa baita hiztun komunitatean zabaldua dauden iritzi eta usteak ezagutzeko. Azken batean, beraz, hizkuntza gutxituen kasua fokuratu nahi izan da lan honetan, kasu horietan agertzen diren berezitasunak ardatz izanik.

1. Estandarizazioa

Ezbairik gabe esan daiteke aspaldiko kontua dela munduko hainbat hizkuntzatan aldaera jaso eta bateratu bat osatzearen beharra. Ugariak dira, halaber, hori egikaritzeko hainbat taldek zein banakok emandako urratsak eta eginiko ahaleginak. Estandar bat sortzeko edo, hobe esanda, eraikitzeko, hainbat arrazoi egon daitezke, baina badira arlo honetan hizkuntza guztiek partekatzen dituzten helburuak: XVII. mende inguruan hasiko ziren Europako zenbait estatu hizkuntzaz arduratuko ziren lehenengo akademiak edo taldeak sortzen, gehienetan arrazoi politikoak zirela medio, horren adibide argiena, beharbada, Frantses Akademia (*Académie Française*) izanik. Gerora etorriko ziren Espainiako Errege Akademia (*RAE*) eta haren baliokideak. Akademia hauek hasiera-hasieratik helburu jakin bati heldu zioten: hizkuntza aldaera arautu bat taxutzea; jaso, bateratua eta prestigioduna behar zuena hain zuzen ere, gerora, hura garatzen, berritzen eta unean uneko egoerari egokitzearekin batera (Zuazo, 2005).

Nolanahi ere, lehenagokoak dira estandarizazio prozesuan, jakin edo nahi gabe ere, murgildu ziren banakoak. Gehienetan, norberaren lanak hizkuntza beraren dialekto anitzetan izango zuen ulergarritasun mailak kezkatu, dialektalizazioak eragin zuzena baitzuen lanon ulergarritasunean -eta, oraindik ere, badu-. Muga horri helduz, honela mintzo da, besteak beste, Joanes Leizarraga bere Testamentu Berrian: “batbederac daqui heuscal herrian quasi etche batetic bercera-ere minçatzeco maneran cer differentia eta diuersitatea den” (Leizarraga, 1571: 254).

Oztopo edo arazo honi erantzutea ez ezik, aldaera estandar bat eraikitzeak, nagusiki, eredu idatzi bat gorpuzteari erantzuten dio, hizkuntza horren hiztunek eredu jaso bat izan dezaten, zeinari erreparatuko baitiote idazteko edota hitz egiteko argibideak jasotze aldera. Gainera, ondoren azalduko den “erreferentzialtasun” kontzeptuari erantzuteko ere balio du estandarrak.

Beste ezeren aurretik egokia izango litzateke nahasgarri gerta daitezkeen bi kontzeptu ondo bereiztea: “arautzea” eta “estandarizazioa”, D’Andrés Díaz-en hitzek *Lenguas minoritarias en Europa y estandarización* (2018) lanean ezin hobe azaltzen dituztenak. Usu, arautzeak estandarizazioa dakar, alegia, aldaera estandar bat ezartzea, baina lehenak ez du zertan beti bigarrena ernaldtu; bigarrenak, ordea, halabeharrez du lehenengoa beharrezko. Arautzeari esker, dagoeneko hitz egiten den hizkuntza zein hizkera horri irizpideak ematen zaizkio, errealitate den hori nola idatzi edo nola bidera daitekeen azaltzen da. Estandarizazioa, aitzitik, lehendik aipaturiko irizpide horiei jarraituz, hizkuntz aldaera jakin bat ezartzean datza. Horregatik beragatik, arautzen den orok ez du zertan estandarrarekin bat egin. Horren adibide izan liteke, besteak beste, historiaren une jakin batean, idazle jakin batek egiten duen hautu ortografiko bat, demagun, <nn> ordeztu, <ñ> erabilteza; arau bilakatuko da bere idatzietan, sistematikoki erabiliko baitu, baina horrek ez du estandar egiten.

Noski, estandar bat eraikitzeke zenbait urrats jarraitu beharra dago, eta XX. mendearen bigarren zatian, prozesu horrek eskatzen dituen pausoak zerrendatzeari eta azaltzeari ekin zioten Einar Haugen (1987) bezalako hainbat adituk. Lehenik, ezinbestekotzat jo zuen arau hautaketa bat egitea, maiz, erakundeek edo buruzagiek gidaturik zein baldintzaturik. Oinarri batetik abiatu beharra dago, estandarraren zimenduak zeintzuk izango diren aukeratu beharra dago, eta horren arabera, bi multzo bereizten ditu D’Andréssek (2018): koine baten inguruan eraikitakoak, hau da, hiztunek, arrazoiak arrazoi, hizkera orokor edo *lingua franca* gisa hartzen duten hizkera jakin baten inguruan, eta dialekto batean edo gehiagotan oinarritutakoak. Galiziera zein euskara aipatutako bigarren sailkapenean kokatuko genituzke; izan ere, galiziera estandarra hizkuntzak dituen hiru bloke dialektaletan oinarritzen da (sartaldekoa, erdiguneko eta sortaldekoa), beharbada, sartaldekoak, baina, batik batik, erdigunekoak izanik pisu handienekoak (Monteagudo, 2005): euskararekin ere hori da topatzen duguna, dialekto guztien ezaugarriak barnebiltzen baititu, berriz ere, zalantzarik gabe, Koldo Zuazok (1998¹) erdialdeko zein nafar izendatu zituen hizkerek pisu handiena izanik, nafar-lapurtekoaren ezaugarri nabariekin ere. Hori guztia aintzat harturik, esan daiteke

¹ Gerora, eguneraketak egin dira (ik. 2014ko bertsioa)

galiziera estandarra eta euskara estandarra biak ala biak konposizionalak direla, ez baitira dialekto bakar batean oinarritzen, bat baino gehiagotan baizik.

Aldaera edo hizkuntza zehatz bat arau bilakatzen denean, kodifikazio deituriko prozesua dator; alegia, hautatutako aldaera edo hizkuntza gorpuztea, itxura fisikoa ematea, “paperera ekartzea”. Nolabait esan daiteke hizkuntzalarien sakoneko lana beti izan dela hizkuntzaren berezitasunez eta ezaugarriez jabetzea, eta horiek egitura zehatz eta hurrenkera egoki batekin azaltzen jakitea; hau da, “gramatizazio” (“*grammatication*”) deiturikoa egitea. Gerora etorriko dira ezarketa edo inplementazio lanak, ikuspegi didaktiko eta pedagogiko bati erantzuten diotenak (Haugen, 1987). Estandarra eraikitzerakoan, gainera, zenbait hautu egin behar dira: dialekto bakarrean ala gehiagotan oinarritu, estandar bakar eta zurruna ala lekuan lekuko hizkeraren arabera tasun bereizgarriak dituzten zenbait estandar (esaterako, Kataluniako katalana eta Valentziako katalana) eta abar.

Hainbat helbururi erantzuten dio estandarizazio prozesuak, edo, hobe esanda, hainbat funtzio betetzen ditu. D’Andrések (2018) zenbait funtzio zerrendatzen ditu, baina, beharbada, *erreferentziatzko funtzioa* da horien artean egunerokotasunarekin errazen lot daitekeena; izan ere, funtzio honi esker, hiztun orori sor dakizkiokeen zalantzei erantzun edo irtenbidea ematen zaie, zalantzaren bat izatekotan, hiztunak jakin baitaki estandarrera jo behar duela.

Bestalde, aipatzekoa da ere Heinz Kloss-ek (1967) hizkuntzak sailkatzeko ezarritako irizpideak, *ausbau* hizkuntzak eta *abstand* hizkuntzak bereiziz. Hizkuntza bat *ausbau* (“sendotze”) gisa hartzen da baldin eta garapen bat izan badu, eta, batik bat, moldaketa edo berregituraketa bat izan badu, gehienetan, estandar batez “erditzeko” moduan egoteraino. Euskarak zein galizierak *Ausbausprache* (“hizkuntza sendo”) titulua bereganatu dutela esan daiteke Klossen irizpidearen arabera, azken mendean, berregituratze edo, hobe esanda, egituratze eta trinkotze prozesu batetik pasa baitira. *Abstand* kontzeptuak (“distantzia”), berriz, zalantzarik gabe beregainak diren hizkuntzei egiten die erreferentzia, eta aztergai ditugun kasuetan euskarak beteko lituzke baldintza horiek; izan ere, modu argian bereiz daitezke euskara eta berau inguratzen duten gainerako hizkuntzak, edo, are gehiago, linguistikoki nahasezinak dira inguruko hizkuntza erromanikoak eta euskara, eta, beraz, *continuum* dialektal baten etenune garbia dago euskarak hartzen dituen eremu geografikoen mugetan. Bide beretik, ezin uka galizierak gaztelania zein portugesearekin dituen loturak -estuagoak ala lausoagoak norberaren ikuspegiaren arabera²-, maiz, muga politikoak ezerezten baititu *continuum* horrek, beste behin ere, hizkuntzek muga politikoez ezer gutxi dakitela argi

² Galiziera hizpide duen 3. atalak sakontasun handiagoaz jorratzen du fenomeno hau.

utziz. Klossek ezarritako sailkapen edo irizpideei Žarko Muljačić (1993) hizkuntzalari kroaziarrak proposatutako *Dachsprache* (“teilatu hizkuntza”) kontzeptua gehi dakieke. Kontzeptu honek hizkuntza batek estandar gisa beste hizkuntza bat hartzeari egiten dio erreferentzia; hau da, hainbat mendetan, euskarak eta, bereziki, galizierak egin bezala. Euskaldunek hainbat urtez frantsesa eta gaztelania izan dituzte hizkuntza estandar bakarrak, horrek hizkuntza horiei dakarkien prestigio eta aitortza guztiarekin -euskararen kaltetan noski-. Galizierak ere gaztelania izan du *Dachsprache* urte luzez, eta kasu honetan, gainera, gaztelaniazko forma eta hitzen “bonbardaketa”z harago, jendarteak zuen hizkuntz pertzepzioan eragin handia izan du, zenbaitetan, galiziera gaztelaniaren aldaera hutsa baino ez zela pentsatzeraino (Salgado eta Monteagudo, 1993).

2. Euskararen kasua: anabasaren amaieran Arantzazu

Atal honetan euskararen estandarizazio prozesuan inflexio puntu izandako Arantzazuko Biltzarra izango da gai nagusia, lehenik, bertarako bidean jazotakoak aipatuz, eta, azkenik, hiztun berriek bertan hartutako erabakiekiko duten ikuspegia azaleratuz.

2.1. Aurrekariak

2.1.1. XX. mendera arteko loraldi geldoa

Lan honen lehenengo lerroetan esan bezala, aspaldiko kontua da estandarren beharra, eta euskararen kasuan ere badira zenbait idazle eta aditu duela zenbait mende, dagoeneko, estandarren beharraz mintzo zirenak, gehienetan, zeharka bazen ere. Horien berri ematen digu Zuazok 2005ean argitaratutako *Euskara batua, ezina ekinez egina* lanean. Hasieran aipaturiko idazleen artean lehenetarikoa dugu Esteban Garibai, euskaraz zein gaztelaniazko idatziak utzi zizkiguna, eta duela bospasei mende, euskaldunek elkar ulertzeko zituzten oztopoez hausnartu, eta jardun zuena. Ipar Euskal Herriko lekukotasunei erreparatzen badiegu, Pedro Agerre, “Axular”, izango genuke arestian aipatutako ezintasun edo oztopoaz hitz egiten duen idazle ezagunenetarikoa. Hauxe zioen *Guero* bere maisulanean (1643: 17):

Badaquit halaber ecin heda naitequeyela euscaraco minçatce molde guztietara. Ceren anhitz moldez eta differentqui minçatcen baitira euscal herrian. Naffarroa garayan, Naffarroa behean, Çuberoan, Lappurdin, Bizcayan, Guipuzcoan, Alaba-herrian, eta bertce anhitz leccutan.

Biek ala biek, beraz, euskaldunen arteko ulertezintasunak kezkatuta idazten dute. Haatik, elkar ulertzeko zailtasunek pizten zituzten kezkak aipatzeaz gain, jarrera ekintzailea hartu, eta bere kabuz euskaldun guztiek, edo ahalik eta euskaldun gehienek behintzat, ulertzea

helburu zuen euskara landatzen hasi zenik ere bada; Joanes Leizarraga beskoiztarra. Ekintzaitza horren adierazle da Joana Albretekoak Nafarroako Erreginak agindutako Testamentu Berriaren itzulpena (1571). Itzulpen lan honek euskara estandarren lehenengo aurrekaria ezarri zuela esan daiteke. “Heuscaldunei” deituriko atala da guzti horren erakusgarri, bertan hainbat argibide eta azalpen ematen ditu idazleak -atal honi dagokionez, idazle da eta ez itzultzaile, Leizarragak berak sortua baita-, irakurleei zuzendutakoak, testua modu egokian uler zezaten, eta, gainera, argi dio zein den Testamentu Berria inork hitz egiten ez zuen hizkera “batu” batean idatzi izanaren helburua: “lengoageaz den becembatean ahalic guehiena guciey adi eraciteari iarreiqui içan gaitzaitza, eta ez choil edocein leku iaquineco lenhoage bereciri” (Leizarraga, 1571: 254). Hitzok argi uzten dute, beste behin ere, euskara batu bat osatzearen kezka ez dela azken mendeko kontua, ezta azken bi mendetako ere, aspalditik zetorren kezka bat zela baizik, eta aspaldiko idazleek ere gabezia horri nola edo hala erantzun nahi izan ziotela, norberaren iritzirako utziz saiakera horietako bakoitzaren egokitasuna eta zuzentasuna.

Estandarizazio prozesu gehienetan, ez bada guztietan, bada gainerakoak baino asaldagarriagoa den atalik, maiz, ortografia izanik horren adierazle garbiena: zein ikur grafiko erabili hots hau edo hots hura adierazteko? Diakritikorik bai? Afrikatuak adierazteko, ikur bakarra ala bi? Galdera guzti horiek polemika handia sortu ohi dute aldaera estandarra taxutzen aritzen direnen artean. Horretan, noski, literatur tradizioak zeresan handia ematen du, eta, sarri, berau hartzen da erabakiak hartzeko ardatz gisa. Tradizio honetara joz gero, Arnaut Oihenart olerkari mauletarra dugu euskal “ortografiagintza”n aitzindaria, euskaraz idaztean erabili beharreko grafiak zehazten ahalegindu baitzen. Oihenartek hartutako erabakien artean zenbait egunera arte iritsi zaizkigu, euskara batuaren arau ortografiko gisa ere onartuak izateraino. Horien artean, besteak beste, [b] zein [β] fonemak adierazteko, <v> grafiaren ordez, erabiltzea proposatu zuen, edota tradizio luzeko <y> grafia baztertzea <i> letraren mesedetan. Dena dela, inongo tradizio eta jarraipenik izan ez zuten zenbait neurri edo arau ortografiko ere proposatu zituela aipatu beharra dago, baina bere lan eta kezkari inongo itzalik eransten ez diotenak (Zuazo, 2005: 35).

2.1.2. Euskara batuaren atarian, XX. mendearen lehen erdia

Zenbait mende aurrera eginez, ezbairik gabe euskara estandarrean erabakigarria izan den XX. mendera heltzen gara. XX. mendearen lehenengo erdian, gertakari entzutetsuenak, ziurrenik, Eusko Ikaskuntzaren eta Euskaltzaindiaren sorrera izango lirateke. 1918an, Oñatin Hego Euskal Herriko aldundiek bultzatuta eta babestuta sortu zuten Eusko Ikaskuntza, euskal

kultura sustatzeko eta egonkortzeko helburuz. Inguruko hizkuntzen akademien itzalean zenbait mendez egon ostean, hainbat euskaltzalek zein idazlek hizkuntzaren arautzeaz, sustapenez eta babesaz arduratuko zen instituzio baten beharra adierazi zutela gogorarazten digu Villasantek (2023). Adierazpenon eta hainbat euskaltzale eta adituren ahaleginen emaitza izan zen 1919ko urrian jaiotako Euskaltzaindia. Erakunde honen kideen artean, beharbada, bat gailentzen zen gainerakoen artean, lehenengo Euskaltzainburu izatera iristeraino: Resurrección María Azkue Aberasturi lekeitiarra. Apaiz ikasketak egin zituen, eta Bizkaiko Aldundiak Euskara Katedra sortu zuenean, lehen hiru hautagaietako bat izan zen Unamuno eta Sabin Aranarekin batera. Azkue gailendu zitzairen bi horiei, eta Gerra Zibila piztu artean, eginkizun horretan jardun zuen. Euskaltzaindiaren sorreran ezinbesteko papera jokatu zuen, eta hala, Euskaltzainburu izendatu zuten, kargu horri eutsiz zendu zen arte (Villasante, 2023).

Azkuek betidanik izan zuen euskara jaso eta batu bat ez izateak sortzen zuen ezinegona, eta, ondorioz, berau egikaritzeko aurrerapausoak eman zituen, horretarako, “gipuzkera”ren baliagarritasunaz jakitun, *Gipuzkera osotua* (1935) agiria argitaratu zuen (Zuazo, 2005). Bertan, “Al lector” atalean (“Irakurtzaileari”), Azkuek Bitor Garitaonandia idazleak behin esandako hitzak dakartza gogora:

Nire aburuz gipuzkoar izkelgia auteisi bear da, beste izkelgiak baño obari geyago dituelako bere alde. Efezagoa, bai zabaltzeko ta bai ulertzeko. Beste guzien erdian arkitzen da; ta efezago da erdikoa bere inguru edo alboetara zabaltzea, ertzak bat egitea baño. Bizkaitařak ulertzen dute gipuzkoařen izkera, gipuzkoařak ez bizkaitařena. Gipuzkoar ta Zuberotar edo Lapurdiťařen artean ori ber-bera jazoten da (Garitaonandia, Azkuek aipatua, 1935).

Garitaonandian hitzotan oso zentzuzkoa den irizpide bat aurkitzen dugu, maiz, estandarrak eraikitzerakoan aintzat hartzen dena, zentraltasun geografikoaren alegia (D’Andrés, 2018). Geografikoki erdigunean kokaturiko hizkerak errazago ulertzen dituzte alde bateko zein besteko hiztunek, eta hizkera hori bereganatzeko ere ez dute, gehienetan, behintzat, aparteko ahaleginik egin behar, *continuum* dialektal bat osatzen duten heinean, alboan dauden hizkera batetik besterako jauzia ez baita hain handia.

Gipuzkera osotua (1935) lanean Azkuek erdialdeko euskararen hainbat ezaugarri dakartza ondo azaldurik, eta gehienetan, helburu didaktiko argia darabilela. Aditz eta izen morfologia jorratzeaz gain (askotariko atzizkiak), aditz erregimenak ere lantzen ditu, arkaismo hainbat aipatzearekin batera. Lan honetan erraz ikus daitezke Azkuek hizkuntzalaritzaz eta euskararen inguruan zituen ezagutza zabal, sakon eta zehatzak, gramatikaren geruza korapilatsuenetan ere murgilduz. Nolanahi ere, garai hartan, zenbait

jarraitzaile izan bazituen ere, nabaria izan zen laster etorriko zen gipuzkera osotuaren gainbehera. Hainbat arrazoik eraginda galdu zuen indarra proposamen hark, tartean, Krutwig-en lapurtera klasikoaren proposamena edota hainbat euskaltzale gipuzkoarrek erakutsitako interes eta borondate eza (Zuazo, 2005: 131).

Aipatu gabe ezin utz daiteke Espainiako Gerra Zibilak euskararen estandarizazio prozesuan izan zuen eragina, zuzena zein zeharkakoa. Gerraren ondorioz, Euskaltzaindiak bere jarduna eten zuen behin-behinean, Azkuek berrogeita hamarreko hamarkadan, Federiko Krutwigen laguntzaz, batuaren eraikuntzari berrekin zion arte. Hain zuzen ere, hamarkada bat beranduago euskara estandarraren jaiolekua izango zen Arantzazun bertan antolatu zuten gerraondoko lehenengo biltzarra ere, beharbada, euskara batua fruitu gisa emango zuen azken hazia bertan landatuz (Euskaltzaindia, 2011).

2.2. Arantzazurako bidea: Baionako biltzarra eta ondorioak

Arantzazura iritsi aurretik, beste hainbat saiakera edo ahalegin egin ziren euskararen batasunaren bidean. Hain ezagun bilakatu den Arantzazuko Batzarra baino lehen, Baionakoak emandako fruituak aipatu beharko genituzke. 1964an, Baionan Euskal Idazkaritza sortu zen, eta urtebete beranduago, *Jakin* aldizkarian hainbat arau eta proposamen ezarri zituzten “Baiona’ko Biltzarraren Erabakiak” izenburupean, gerora, Arantzazun baliatuko zituztenak. Aldizkarian argitaratutako arauen atarian honakoa diote bertan bildutakoek:

Batasunari buruz, euskaltzale guziei erabaki hauek betetzen hasteko eskatzen diegu; eta bereziki Euskaltzaindiari egiten diogu dei bat, bere aipamen guziaz gure erabaki hauek aztertu ondoren onar ditzan (Euskal Idazkaritza, 1965).

Lehenengo arauak grafiarekin lotutakoak dira, hala, hots bakoitza grafikoki nola adierazi beharko litzatekeen adierazten da, baita ahoz, apika, dagokien hitzarekin batera ahoskatzen diren partikulak eta aurrizkiak nola idatzi (“bai” eta “ez” bereiz idazteko agindua; “bait-” aurrizki gisa erabiltzeko araua). Jarraian datozen xedapenak izen morfologiaren, aditzaren eta beronen joskeraren ingurukoak dira besteak beste. Halaber, ezin ahaztu <h>-aren erabileraren inguruan ematen diren zehaztapenak, <h> grafiaz idatzi beharreko hainbat hitzen zerrendarekin: tartean, “hezur” (*“ezur”), “hil” (*“il”), “lehen” (*“leen/len”) edo “huts” (*“uts”) bezalako hitzekin (EI³, 1965).

³ Euskal Idazkaritza

Nolabait, esan liteke, gutxi izanagatik, Baionako Biltzarrean adostutako arauak Arantzazun hartuko ziren hainbat erabaki bultzatu zituztela, edo are gehiago, azken erabaki horiek hartzeko oinarri sendo eta erabakigarria gorpuztu zutela. Baionako Biltzarrean esku hartu zuten hainbat kide, gainera, Arantzazun ere egongo ziren lau urte beranduago, lurraldetasunari dagokionez, nolabaiteko oreka mantenduz beti ere: Txillardegia, Telesforo Monzon edota Eneko Irigarai tartean (Zuazo, 2005: 154).

2.3. Mitxelenaren txostena (1968)

Aski ezaguna da, dagoeneko, Euskaltzaindiak norbaiten esku utzi behar zuela euskararen batasunari forma emateko eginkizuna, eta, horretarako, garai hartako euskaraz, euskararen barne zein kanpo historiaz, dialektologiaz eta abarreko arloez zekien norbait behar zuten hautatu. Euskalari kopurua ugaria zen dagoeneko, euskalaritzak frankismoaren azken hatsetan izandako loraldia zela eta. Baina, nor aukeratu guzti horien artean? Nor izango zen gai hain lan mardul eta garrantzitsua bere sorbalden gainean hartzeko?

Bada, guztien artean bazen baldintza horiek guztiak betetzen zuenik, eginkizun hori egingarri egiteaz gain, ondo garatu zuenik -ezin daiteke esan lana erabat burutu zuenik, estandar bat etengabe ari baita eraikitzen, eta, beraz, ezin dakioke haren sorrerari amaierarik eman-. Koldo Mitxelena Elissalt hizkuntzalari eta filologoa dugu lan horretan jardun zen kidea. Jaiotzaz euskalduna ez bazen ere, gerora bereganatuko zuen hizkuntza hau, eta bereganatu ez ezik, sakon eta fin landuko zuen ere beronen alderdi linguistiko zabala. Hori guztia zela eta, Euskaltzaindiak Mitxelenari, batasunaren zimenduak ezartze aldera, txosten bat idatz zezan agindu zion. Mitxelenak eskakizunari ezin uko egin, eta 1968an argitaratuko zituen Arantzazuko Biltzarrean ardatz izango ziren irizpideak (Zuazo, 2005: 157).

Koldo Zuazok (2005) ondo deskribatzen du zein izan zen Koldo Mitxelenak (1968) ortografiaren inguruko txostena idazteko erabili zituen irizpide eta bideak. Txosten honen hasieran garbiki dio Mitxelenak zein den euskara batua gorpuzteko eginiko hautu dialektala. Usu, metropolietako hizkera hartu ohi da ardatz, Portugalen Lisboako portugesa hartu bezala edo Katalunian Bartzelonako katalana hartu bezala. Euskal Herrian, haatik, metropoli nagusia ez bairik gabe Bilbo zen, eta ezin zitekeen esan inondik inora Bilbo hiri euskalduna zenik, gutxi batzuek baino ez baitzerabilten euskara. Horrek beste irizpide bati heltzera eramane zuen Mitxelena, eta jarraian zerrendatuko diren arrazoiak zirela medio, erdialdeko hizkeraren tasunak nagusi izango zirela erabaki zuen. Batetik, zentraltasun geografikoa dugu, zenbait hamarkada lehenago Garitaonandiak aipaturikoa (§ 2.1.2), Gipuzkoa Euskal Herriaren erdigunean kokatzen denez gero, gertuko hizkera zaie alde bateko zein besteko euskaldunei;

bestetik, hiztun gehien zituen hizkera zen; azkenik, tradizio literarioaren hasieran oparoa ez izanagatik, azken mende hartan, eta, batik bat, XX. mende horretan, ekoizpen gehien eskaini zituen euskalkia izan zen. Guzti horrek ezin baldintza hobegoak ezartzen zituen aldaera estandar bat eraikitzeko, baina hori soilik ez, eta Baionan hartutako erabakiei jarraiki, lapurtera eta nafarreraren hainbat ezaugarriekin uztartzea izan zen Mitxelenak jarraitutako bidea. Erabaki honen bidez, ez zituen Mitxelenak ezein unetan Bizkaiko hizkerak gutxietsi nahi izan. Aitzitik, irizpide praktikoena zenari atxiki zitzaion besterik gabe. Are gehiago, mendebaleko euskaraz jarduten zirenek ez ezik, batasuna erdiesteko, gainerakoek ere hainbat puntutan amore eman beharko zutela aipatu zuen: “Nolanahi ere amore eman beharrean aurkituko gera guztiok, zeinek gehiago zeinek gutxiago, horretara heldu nahi badugu” (Mitxelena, 1968: 204).

Lehenik idazkerari dagozkion irizpideak ematen ditu Mitxelenak, Baionan hartutako erabakiei atxikitzen zitzaizela esanez, baina horiek sakontasun handiagoaz zerrendatuz. Besteak beste, euskarazko alfabetoa zein hizkik osatzen duten edota zenbait hots adierazteko helburuz erabili beharreko digramak aipatzen ditu. <r>-ren erabileraz luze samar jarduten da, askotarikoak baitziren, hizki horri dagokionez, leku batetik bestera, idazle batek zein bestek ordura arte jarraitutako bidea. Gai eztabaidatsukoetan murgilduz, Mitxelena, neurri batean, hainbat urtez arras zabaldurik egondako zenbait jarraibide etimologikotatik urruntzen da, esaterako, mendiaren izenak “Aizkorri” behar zuela esanez, “Aitzgorri” etimologikoaren kaltetan: “Ez dugula, hots, etimologiaren zaintzaile izan behar horrelakoetan, baizik eta mendeen joanak errotu dituen hots-legeen aldeko” (Mitxelena, 1968: 206).

Hain korapilatsu eta eztabaidagarri gerta daitekeen ortografiaren gai honetan, ezin aherentzi hasperenak eta beronen galeraren inguruko askotariko iritziek euskara baturanzko bidean jarritako oztupoak. Zenbaiten aburuz, <h> kasu guztietan beharko zatekeen idatzi etimologiari edo hitz bakoitzaren forma zaharrari jarraituz; beste zenbaitek zioten onena zela <h> hori egun hasperena darabilten hizkeretan oinarrituta idaztea; eta beste asko, Hegoaldekoak, oro har, <h> bakar bat ere ez idaztearen aldekoak ziren. Anabasa guzti horretan gaitz izango zen alde bateko zein bestekoen nahiak asetzea -eta gertatu, hala gertatu zen-, baina Mitxelenak, iritziak eta jendea batzeko garatu zuen gaitasunaz, erdibideko hautua egitea erabaki zuen, lehen aipaturiko hiru iritzien artetik, aldaketak aldaketa eta murriztapenak murriztapen, bigarren iritziari lehentasuna emanez. Beste behin ere, Baionan erabakitakoekin (1965) bat egin zuen Mitxelenak, eta sei xedapen eman zituen hizki honen inguruan: lehenik, berdinak diren bi bokalen artetik <h> “behar denean eta behar denean bakarrik” idaztearen beharrezkotasunaz mintzo da, edonolako atzizkiren atxikitzeak ekar ditzakeen bokal bikoitzak

salbuetsiz (“semeei”, “gazteen”, eta abar); bigarrenik, bokal biren artean zenbaitetan idatzi beharra eta beste zenbaitetan <h> baztertu beharra adierazten du, besteak beste, “naiz” eta “nahiz” bereizteko orduan; hirugarrenik, hainbat hitzetan bokal artean ahoz erabili ohi den /g/-ren aldean (idatziz, <g>), <h> idaztea gomendatzen du, horrela, “ehun” eta ez “egun”, “lehor” eta ez “legor”; laugarrenik, hitz hasieran <h> behar duten hitzez egiten du solas, horiek guztiak barnebilduko dituen hiztegiaren beharra aipatuz; bosgarrenik, eta Baionako erabakiei jarraituz (1965), herskari ahoskabeen ostean <h>-rik ez idaztea iradokitzen du (/p/, /t/, /k/), ezta hots ozenen ostean ere (/r/, /l/, /n/); seigarrenik eta azkenik, diptongo ondoren <h> idazten saihestea agintzen du.

Horrezaz gain, zenbait ikur grafikoren inguruko azalpenak ematen ditu, “?” eta “!” soilik erabili behar direla, eta apostrofea testuinguru oso zehatzetara mugatu behar dela. Gainera, tradizio idatzi osoan zehar idazle bakoitzak nahi bezala idatzitako atzizkien nolakotasun grafikoaren inguruko argibideak ematen ditu, hitz eta izen arrotzen salbuespenaz, gainerakoak elkarturik idaztekoak direla adieraziz, inongo marratxo edo ikurren laguntzarik gabe. Arau ortografikoekin amaitzean, argibide lexikoak ematen ditu euskal hitzaren kontzeptuaz hausnartuz, euskaltitik euskalkira aldatzen ziren hitzen arteko hautaketaz mintzatuz, eta hitz berrien eraketaz jardunez. Jarraian morfologiari eskainitako atala dakarkigu, aditz zein izen morfologiaren inguruko zertzelada zenbait emanez. Amaitzeko, “Joskera” izendatutako atala garatzen du Mitxelenak. Bertan estiloari eta erregistroari heltzen die euskarak mendeetan zehar izan duen bilakabidearen gaineko hausnarketa eginez. Literaturaz ari da, prosaz eta abarrez (Mitxelena, 1968).

2.4. Arantzazuko Biltzarra: euskara batua jaio da

Arestian jorratutako Mitxelenaren txostena aurkeztu zuten Euskaltzaindiak, Manuel Lekuona Euskaltzainburu zela, Arantzazuko Basilikan antolaturiko biltzarrean. Helburu nagusia bertatik euskara batua, edo, behintzat, beronen oinarri sendoak ateratzea zen, eta egin, egin zuten. Bertara askotariko lagun ezagunak gerturatu ziren, idazle, euskaltzale, hizkuntzalari eta abar tartean. Mitxelenak taxututako euskara batuaren proposamena eztabaidatu zuten bertan, adostasun eta desadostasunak azaleratuz, eta eztabaida sakon baten ostean, 1968ko urriaren 3tik 5era artean, hiru egunez bilduta egonik, adostasun bat erdietsi zuten, eta eztabaida zein elkarrizketa luze eta sakon horien ostean, euskararen historian, apika, inflexio puntu garrantzitsuenetako bati bide eman zioten, euskara batuaren sorrerari alegia. Hainbat eta hainbat urtez “amestu”tako, hausnartutako, eztabaidatutako eta borrokatutako

unea iritsi zen azkenean. Badirudi, Mitxelenak bere txostenean iradoki legez, norberak bere egoskorkeriak alde batera utzi, eta batasunaren bidean apustu sendoa egitea adostu zutela. Bertan hitz egindakoari eta adostutakoari ehun orrialde baino gehiago eskaini zizkioten 1968ko Euskaltzaindiaren *Euskera* egunkariaren hamahirugarren alean. Aldizkariaren ehun eta berrogeita bosgarren orrialdean honakoa dio Villasantek:

Euskeraren batasuna: orra kezka, asmo edo amets bat beti bizi bizia egon dena, Euskaltzaindia sortu zen ezkerotik behintzat. Lehenago ere aurkitzen dira gure idazle zaharretan gai huni buruz halako iritzi, zantzu eta antz-emate batzuk; esate baterako, Joannes Leizarraga-n, Axular-en, Sarako Joannes Etcheberri-n, Larramendi-n, eta habar.

Argi ikus daiteke, beraz, Arantzazuko Biltzarraren ardatza euskara batuari forma ematea zela, eta helburu horri helduta ahalik eta erabaki fin, zorrotz eta egokiena hartzea.

Esan bezala, Arantzazuko Biltzarrean hartutako erabakiak lehen aipaturiko *Euskera* agerkariaren XIII. alean argitaratu zituzten. Mitxelenaren txostenaren (1968) dinamikari jarraituz, deklinazioaren inguruko argibideak ematen dituzte, deklinazio marka horiek asmatutakoak ez, eta ahozko zein idatzizko tradizio bati erantzuten diotela adieraziz, eta, jakina, Baionan egindako bileran edo batzarrean hartutako erabakiekin bat egiten dutela esanez, hiriburu lapurtarrean egondako gorabeherak gorabehera. Deklinabide marken zerrenda eman ostean, horietako bakoitzean sakontzen dute, bakoitzarekin sor daitezkeen zalantzak argituz, eta hainbat adibide emanez. Deklinabide marken inguruan mintzatu ondoren, “-a” itsatsiaren inguruko garrantzia aipatzen dute, hitzak deklinatzerakoan ezinbestekoa baita deklinatu nahi den hitzak “-a” itsatsia duen ala ez jakitea, eta ildo beretik, hainbat leku-izen jokatzeko irizpideak ere ematen dituzte, zenbaitetan, korapilatsu edo eztabaidagarri gerta zitezkeelakoan.

2.5. Geroa: hiztunen harrera, iritzia eta egungo egoera

Jendeak estandarra erabiltzea eta ahalik eta modu normalenean barneratzea bada estandarizazio prozesu baten helburu praktikoa nagusia, esan daiteke beronen ezarpenak berebiziko garrantzia duela prozesu osoan zehar, eta, noski, erabakigarria izan daiteke eta erabat baldintza dezake estandarizazioaren emankortasuna (D’Andrés, 2018: 37). Horren harira, aintzat hartzekoa da, nola ez, hiztunek aldaera estandarrekiko duten jarrera eta beronekiko atxikimendua; izan ere, hiztunak berak dira estandar hori gorpuztuko dutenak, eta hein batean, forma emango diotenak. Ildo beretik, hizkuntza gutxituetan hiztun berriek hiztun

komunitatean duten pisua kontuan izanik, eta hauexek, kasu gehienetan behintzat, aldaera estandarra erabiliko dutela kontuan izanik, aintzakotzat hartzekoa da haien iritzia.

Atal hau aztertzerakoan, interesgarria izan daiteke zenbait kontzeptu gure honetara ekartzea, eta horien artean “autoritate”, “autentikotasun” edo “anonimotasun” kontzeptuek paper nagusia jokatzen dutela esan daiteke, bereziki, euskararena bezalako ukipen egoera batean dauden hizkuntzen kasuan. Hizkuntza baten aldaerak lor dezakeen autoritate maila aztertzeko edo zehazteko, “anonimotasun” eta “autentikotasun” kontzeptuak hartu behar dira aintzat. Batetik, anonimotasunak neutraltasuna dakar, hau da, aldaera jakin hori ezein giza talde edo kolektiborekin ez lotzea; aitzitik, autentikotasunak balioa dakar, jatoriasuna (Woolard, 2008, Urla et al.-ek aipatua, 2018). Gai honi dagokionez, emaitza esanguratsuak dakarzkigute argitara Urlak et al.-ek (2018): hiztun berriek euskara batuarekiko duten pertzepzioaz ari direla, egindako ikerketa baten ondorioztat dute hiztun berriek ez dutela ukatzen euskara estandarren erabilgarritasuna, baina horrek ez diela aparteko prestigiorik ematen, ezta aparteko autoritaterik ere. Are argigarriagoa den adierazpena egiten dute honako hitz hauekin: “[...] mastery of vernacular seemed to be a more relevant factor in shaping new speaker’s success in transitioning into active speakers than language planners had anticipated” (Urla et al., 2018). Zera iradokiz: oraindik ere, hiztun berriek, euskara estandarra erabiltzeagatik, talde jakin batean sailkatuak izaten jarraitzen dutela, eta, ondorioz, euskara jaiotzatik jaso dutenek nekez ikusiko dituztela hiztun berri horiek “hiztun oso” gisa. Hortaz, eta euskalkiek euskara lehen hizkuntza dutenen artean duten prestigioa dela medio, hainbat eta hainbat hiztun berri horiek menderatzen ahalegintzen dira.

Aipatutakoak aipatuta, aurrekoaren osagarri gisa txerta daiteke *enregisterment* kontzeptua; hau da, prozesua zeinaren bitartez hizkuntz aldaerak gizarteratzen baitira eta gizarateak, modu batera edo bestera, ezagunak izatera pasatzen baitira (Agha, 2005; 2007, Urla et al.-ek aipatua, 2018). Honek ezinbestean baldintzatzen du aldaera estandar baten etorkizuna, behar bada, eta neurri batean orokortuz, hegemoniko diren hizkuntzen estandarizazio prozesuan, maiz, estatu baten gidaritzapean edo haren interesak asetzeko helburuz egindako estandarrak direnez, nekez izango du estandarrak gizarteratze negatiboa, edo, hobe esanda, gutxik ikusiko dute aldaera hori prestigio gabeko gisa. Aitzitik, euskara bezalako hizkuntza gutxituen kasu diglosikoetan, dagoeneko, prestigioduna hizkuntza hegemonikoaren aldaera estandarra denez, zenbait pertsona estandarizazioa hizkuntza gutxituaren beraren joera naturalaren desbideratze gisa ikusteraino irits daitezke (D’Andrés, 2018).

Euskararen kasuan, gainera, arrazoi historikoen ondorioz batik bat, *lausotze dialektal* gisa izenda daitekeenak hautsak harrotzen eta pasioak kitzikatzen dituela esan daiteke. Estandarizazio prozesu gehienen, ez bada guztien, emaitza da lausotze dialektala, zeinaren ondorioz dialektoak lausotuz joaten baitira aldaera estandarrean bat egin arte. Zenbaitetan, tokian tokiko hizkerak guztiz desagertzera irits daitezke, beste batzuetan, ordea, hizkera bakoitzaren sendotasunaren arabera, zenbait ezaugarriak denboran zehar iraun dezakete. Esan bezala, fenomeno hau saihestezina izaten da aldaera estandarrak eraikitzen direnean -emankorrek badira, noski-, eta nolakoa hizkuntzaren egoera soziolinguistikoa, halakoa izango da lausotze dialektalaren aurrean jendeak erakusten duen jarrera. D'Andrés Díazek lerrootan ezin hobeto laburbiltzen du nola ez den neurri bera erabiltzen hizkuntza hegemonikoen eta gutxituen lausotze dialektalen kasuan:

Parekatze dialektala estatu mailako hizkuntza estandar batean gertatzen denean, haren inguruko balorazioak ez dira, oro har, bestelakoetan bezain negatiboak izaten. Kontrara, fenomeno hau hizkuntza gutxituetan gertatzen denean, parekatze dialektala estandarra deabruzeko baliatzen da, oraingoan, hizkuntzaren egoera naturalaren profanazio gisa ulertuta.⁴ (D'Andrés, 2018; 39)

3. Galizieraren kasua: bi poloren arteko talka amaigabea

Euskararen kasua aztertutik, galizieraren estandarizazio prozesuaren nondik norakoari heltzeko unea da, tradizio idatziaren hastapenetatik aldaera estandarren eraikuntzara arte, eta egungo *neofalante*⁵ deritzenek duten iritzia aipatuz.

3.1. Aurrekariak

3.1.1. XIX. mende amaiera: ezerezetik *Rexurdimentoren* loraldira

Ezin uka galizieraren historiaz luze jardun gintezkeela, eta, ziurrenik, lan honen mugak direla eta (denbora, hitz kopurua etab.), atal garrantzitsu eta esanguratsuak esan gabe utziko dira, baina euskararen aldean galizieraren historia idatzia gehien bereizten duena, apika, berankortasuna da, eta horrexegatik helduko diogu galizieraren historia idatziari ulerkera orokor eta hertsian, Erdi Aroko latinaren “alaba” izandako galego-portugesari aipamen handirik egin gabe (atal honetan behintzat).

Azpiatal honen izenburuak zein arestian egindako sarrerak iradokitzen duten bezala, galizieraren tradizio idatziaren hastapenetara joateko, ez dugu denboran atzera gehiegi egin beharrik, aitzitik, Carvalho Calerok (1974) ondo azaltzen duen bezala, XIX. mende amaierara

⁴ Hitzok gaztelaniatik nik euskaratuak dira

⁵ Hitzun berri

joatearekin nahikoa genuke. Erdi Aroa amaitzean, galiziera idazten zuten lumak tintarik gabe geratuko dira, harik eta XIX. mendean, zenbait idazle zein *galeguista*⁶ testu zaharren presentziaz jabetu, eta galizieraz idazten hasi ziren arte. Ordura arte, Galiziako hizkuntza idatzi bakarria gaztelania izan zen, eta orduan ere galizieraz idazteari ekin ziotenek gaztelania zuten idazketa arauen eredu. Galiziera idatziaren basamortu horretan *Rexurdimento* (“pizkunde”) deituriko mugimenduak garai hartara arteko egoera irauli zuen, galizierazko letrei aspaldiko handitasuna ekarriz, eta ahozkoa soilik mugatzen zen hizkuntza paperera ekartzeaz arduratuko ziren. Bide horretan oztopoak edo aurkako iritziak ere agertu ziren. Pardo Bazán bezalako idazleek galizierari mugak jarri, eta landa eremuan zokoratu nahi izan zuten. Nolanahi ere, galegoa idatziz literatura esparruan baino ez zen agertzen, eta nekez aurki daiteke bestelako idazkirik Rosalía-ren mintzairan idatzia. Esaterako, eskutitzak ere gaztelaniaz idazten zituzten, eta erakusgarria da galizierazko letretako pertsonaia behinena den Rosalía de Castro idazleak ere eskutitz bakar bat ere galizieraz idatzi ez izana (Carvalho, 1974).

Maiz, hizkuntza baten gramatika egitea “arte”a egitearekin erkatu izan da, gramatika ei da hizkuntzaren artea. Bada, artegintza horretan murgildu zen 1868an Juan Antonio Saco Arce katedratiko ourensearra. Gaztelaniaz idatzitako bere *Gramática Gallega* (1868) lanaren hitzaurrean nabari da Saco Arcek baduela galizieraren egoera soziolinguistikoaren berri, eta berau deitoratu ere deitoratzen du. Hala ere, ez dio hizkuntzari aparteko goraiamenik egiten, eta, agian, ikuspegi folkloriko batetik heltzen dio beronen egoera soziolinguistiko malkartsuari (Saco, 1868). Lan honek gehiago du deskribatzaile izaeratik arau emaile izaeratik baino; izan ere, ez du inongo irizpiderik ematen ezta hobespen edo gomendiorik ere, baizik eta errealitatearen deskribapen hutsa egitera mugatzen da. Besteak beste, fonetika, lexikoa, gramatika edo aditz joskera jorratzen ditu. Saco Arceren asmoa deskriptiboa da beraz.

3.1.2. XX. mendearen lehen erdia

Espainiar Estatuko gainerako hizkuntza gutxituentzat bezala -asturiera eta aragoiera salbu-, zalantza izpirik gabe galizierarentzat ere loraldi garaia izan zen XX. mendea, eta mende honen beronen hastapenetan loraldi hori igartzen hasi zen (Alonso, 1988). XIX. mendeak emandako urratsekin jarraituz, XX. mendearen hasieran hainbat izan ziren

⁶ Galiziaren izaera kultural eta linguistikoa aldeztzen duena, galegoaren defentsa eta sustapena helburu behinenetakoa bat izanik.

estandarizazioaren ibai luzean murgildu zirenak, urteotara arte, emari gutxikoa izandako ibai hartan.

Europako beste zenbait hizkuntzatan estandarizazio lana prestigiozko idazle edota hizkuntzalari bakar batek taxutu zuen, horren adibide izanik Kataluniako Pompeu Fabra, katalan estandarraren aita, eta Dante Alighieri florentziarra; jakin gabe ere, bere idazkera hartuko zuten italiara estandarraren oinarri gisa. Galizierak ez zuen halako pertsonaiarik izan, eta, hortaz, batasunaren proiektuaz arduratuko zen talde edo antolakunderen baten egarri ziren hizkuntza eta Galizia bera ere (Alonso, 1988).

Guztiok ezaguna da Rosalía de Castro idazle galiziar paregabea, galizierazko literaturari emandako prestigioaren ondorioz, baina ezin genezake aipatu gabe utz bere senarra izandako Manuel Murguía, hauxe izan baitzen galegoaren estandarizazio ezak kezkaturik lanean hasi zen lehenetarikoa, modu zuzen eta esplizituan behintzat. 1904an, “Necesidad de la formación y publicación de un Diccionario de la lengua gallega” deituriko artikulua argitaratu zuen *La Temporada* egunkarian (“galizierazko hiztegi baten eraketaren eta argitalpenaren beharra”). Bertan hainbat adituk osaturiko talde batek hiztegi bateratu eta jaso bat osatzearen beharraz mintzo da, nahiz eta ez duen zuzenean eta zentzu hertsian akademia bat sortzeko beharra plazaratzen. Alonsok (1988) adierazten duenez, artikulua hark hautsak harrotu zituela esan daiteke, eta batek baino gehiagok eman zion jarraipena Murguía egindako proposamenari, baina horietako batek ere ez zuen lortu erdiespen gorena, akademia baten sorrera.

Honela, eta hainbat ahaleginen ostean, Galo Salinas Rodríguez kazetariak Akademiaren sorreraren iragarpena egiten du, bide batez, ezin modu poetiko eta hotsandikoagoan: “[...] vencieronse obstáculos y derrumbáronse fronteras, y al fin la victoria premia con sus lauros la virtud de la perseverancia. ¡Galicia se regenerará y se inicia su redención!” (Salinas, 1906, Alonso-k aipatua, 1988). Hitzotan argi islatzen dira egun ere bizirik dirauen Akademiaren jaiotza bultzatzeko hainbat *galeguistak* egindako ahaleginak. Beste behin ere, Murguía jauna hitz jario honetara ekarri beharra dago; izan ere, hura izan zen, nor bestela, Coruñan sortutako Real Academia Galega-ren lehenengo buruzagia, *o primeiro presidente* (Alonso, 1988).

Nahas-mahas guzti honetara ekartzekoa da, halaber, Seminario de Estudos Galegos taldeak egindako lan eskergea, gerora, aldaera estandarraren inguruan hartuko ziren hainbat erabaki ulertzeko ezinbestekoa da eta. 1933an, esaterako, *Algunhas normas pra a unificación do idioma galego* argitaratuko zuten, oraingoan bai, izaera erabat arauemailearekin eta hainbat eta hainbat zalantza argitzeko helburuz: <ç> erabili ala ez, /ñ/ adierazteko <ñ> edo

portugeseko <nh> grafia erabili behar eta abar (Seminario de Estudos Galegos, 1933). Hiru urte beranduago, 1936an, *Engádega: as normas pra a unificación do idioma galego* izenpean zenbait zuzenketa eta gehiketa egin zizkioten hasierako lanari; izan ere, “[...] (akademiak) zenbait ohar egin ditu eta horiek jakitea gomendagarria dela deritzo”⁷ (SEG⁸, 1936). Bide batez, esanguratsua da izenburuan berean *unificación* hitza topatzea, latinez *-tio* amaiera zuten hitzak eta atzizki horrekin berarekin sortutakoak nola “galizieratu” luze eztabaidatua izan baita (batzuek *-ción*; besteek *-zón*), eta ikus daiteke, hortaz, aspalditik zetorren oposaketa zela, eta ez soilik XX. mendearen amaierako kontua, atal zabal honen izenburuan aipatzen ziren “bi polo” horien egitasunean berretsiz (ik. 3. atala).

3.2. 1970eko hamarkada erabakigarria: *ILG* eta *RAG*

Galegoaren estandarizazioa lantzen ari garen honetan, eta azpiatal honi izen ematen dion gaiari heldu aurretik, estandarizazio prozesu hori goitik behera zeharkatu duen eztabaidaren zertzelada batzuk ematea egokitzat jo daiteke. Aspaldiko kontua zen arren, Francoren Erregimena bere azken hatsetan zegoenean, galiziera estandarraren inguruko eztabaidak berpiztu ziren eta horrekin batera errealitate beraren bi ikuskera desberdin ere. Ikuskera horiek ezin hobe azaltzen ditu Francisco Fernández Rei-k 2018ko *Lenguas minoritarias en Europa y estandarización* izenpeko lanean. Batetik, galiziera hizkuntza beregain gisa irakurtzen dutenak daude, inguruko ezein hizkuntzarekin lotu nahi ez dutenak-beti ere, gaztelaniarekin zein portugesearekin dituen harremanak ukatu gabe-, eta, ondorioz, galizierak berezko arauak izan eta bere bide propioa jarraitu behar duela aldeztu dutenak, *autonomistak* edo *isolatzaileak*. Bestetik, galizierak eta portugesak duten lotura estuaz baliatuz, bi hizkuntzok hizkuntz sistema beraren parte direla aldeztu dutenak daude, *berrintegrazionista*⁹ edo *lusista* gisa ere ezagunak. Esan bezala, autonomistak galizierak arau propioak izatearen aldekoak dira, aurrekarietan aipaturiko galizierazko literatura garaikideari jarraituz. Hala ere, ez dute ukatzen portugesearen erabilgarritasuna galego estandarraren eraikitze prozesuan, teknizismo eta neologismoak sortzeko edo erabakitzeko garaian zeharo lagungarria izan dakieke eta. berrintegrazionistek, ordea, egokiena galiziera portugesearen sisteman txertatzea izango litzatekeela irizten diote.

Behin hori argi utzita, Instituto Galego da Lingua-k eta Real Academia Galegak galizieraren estandarizazioa hizpide hartuta izandako eztabaida ekar dezagun gogora. ILG

⁷ Nik neuk galizieratik euskarara ekarritako hitzak

⁸ Seminario de Estudos Galegos

⁹ “berrintegrazionista” deritze, behin hizkuntza bera izandako hartara berriz integrazitzekoaren aldekoak baitira (*galego-portugués*).

delakoa 1971an sortu zen, Compostelako Santigagoko Unibertsitatearen (USC) ekimenez. 70eko hamarkada horretan, eztabaida latzak jazo ziren ILGko eta RAGko kideen artean. ILGk *Gallego I* deituriko lana argitaratu zuen 1971an bertan. Lan horretan galiziera jasoak eta jatorrak bere oinarriak ahozko hizkeran zein literatur tradizioan zituela adierazten zuten. Urte berean baina zenbait hilabete beranduago, Galiziar Errege Akademiak *Normas ortográficas e morfológicas do idioma galego* argitaratu zuen, eta bertan adierazten duten iritziaren arabera, berriz, idatzizko galegoa zen zuzena, jatorra, ahozkoa maila apalekoagotzat joz (Fernández Rei, 2018).

Zenbait urteren ostean, eta nolabaiteko norgehiagoka hark inongo fruiturik ematen ez zuela ikusita, adostasunetara iristeko ordua zela iritzi zioten biek, are gehiago jarraian zetorren hezkuntza sistema oso baten beharrak ase beharko zituztela aintzat hartuta. USCk argitaratutako *Bases prá unificación das normas lingüísticas do galego* (1977) lana izan zen behin betiko su-etenaren oinarria, lana bera ere *Bases* (“oinarriak”) gisa ezaguna izanik. Lan honetan hainbat arau eta irizpide ematen dituzte, eta zalantza ugari argitu ere, edo saiatu behintzat. Nabariak dira, halaber, hainbat arautan egiten diren “bikoizketak”, alde bateko zein bestekoek iritziak onartuz (Fernández Rei, 2001, Fernández Rei-k aipatua, 2018). Esaterako, bikoizketa horren adibide dira *-bel* eta *-ble* atzizkiak -zerbait egingarria dela adierazten duten atzizkiak- (*aceitábel/aceitable*, “onargarri”; *comprensíbel/comprendible*, “ulergarri”).

3.3. Berrintegrazionismoa eta NOMIG 82 arauak: dibortzio baten hastapenak

Aurreko azpiatalean aipatu legez, bazen ideia eta iritzien nahaste horretan galegoa eta portugesa hizkuntza beraren bi aldaera gisa ikusten zuenik ere, eta itxuraz, behintzat, babes handiegirik izan ez bazuten ere, Ricardo Carvalho Calerok, Hizkuntzalaritza eta Galiziar Literatura katedradunak, berrintegrazionismoa gorpuzten zuen aditu behinenetakoa izan zen, Fernández Reik (2018) ondo azaltzen duenez. Behin RAGeko kide izanagatik, 1977az geroztik, galizierak norabide berri bat hartu, eta portugesearen arauak helmugako portu gisa behar zituela iritzi zion, eta ideia horri irmoki eutsi zion bere azken egunetara arte. Irrotasun horren adierazle da, besteak beste, bere abizena “Carballo” idaztetik “Carvalho” idaztera pasa izana, euskaraz “haritz” esan nahi duen abizen hori portugesezko grafiarekin idatziz (/ll/;<lh> eta ren orde, <v>).

Sei urte beranduago eta beste zenbait saiakeraren ostean (*Normas ortográficas do idioma galego*, 1980), RAG eta ILG lehenengo aldiz batzorde bateratu batean elkartu ziren,

eta batzorde horren emaitza izan ziren *Normas ortográficas e morfológicas do idioma galego* (RAG-ILG, 1982), *NOMIG 82* akronimoaz ezagunak. Galiziako Xuntak azaroaren 17ko 173/1982 dekretuan ofizial bilakatu zituen aipaturiko azken arau horiek, eta horiek baino ez ziren izango hezkuntzan, erakunde publikoetan eta abarretan erreferentziazko arauak. Gainera, urtebete beranduago Galiziako Gobernuak indarrean jarritako lege baten bidez, ekainaren 15eko 3/1983 Legearen bidez, hain zuzen, galegoaren arautzearen inguruko eskumen guztiak Errege Akademiari ematen zaizkio, ILGri botere oro erauziz (Fernández Rei, 2018). Honela dio aipatutako azken legeak: “Galizieraren arautzeari, eguneraketari eta erabilera egokiari dagozkion kontuetan autoritate-irizpidetzat hartuko dira Real Academia Galegak ezarritakoak¹⁰” (3/1983 Legea, ekainaren 15ekoa, hizkuntza normalizazioari buruzkoa). Xuntak hartutako erabaki horrek atea ixten dio beste edozein aukera edo bideri, saiakera berrintegrazionista orori ofizialtasunerako sarbidea oztopatuz, horrela, hainbat urtetako eztabaidari amaiera emanez, arlo instituzionalari edo ofizialari dagokionez behintzat; izan ere, lusistek beren jardunarekin jarraituko dute ofizialtasunetik at, egun, jarraitu ere horretan jarraitzen dute, eta AGAL (*Associação Galega da Língua*) bezalako erakundeek egindako lana izango da horren erakusgarri. Azken honek, adibidez, *NOMIG 82* arauetik aurkakotasuna erakuste aldera, *Estudo crítico* (1983) deituriko lana argitaratu zuen, Xuntak ofizialtzat jotako arauak berrintegrazionismoaren oinarrien bidez gezurtatu nahian (Fernández Rei, 2018).

3.4. Geroa: hiztun berrien ikuspegia, autoritate falta eta estandarraren eragina

Euskararen kasuari dagokion azken atalean esan bezala (§2.5), honakoan ere aintzat hartzekoak dira “autoritate” edo “autentikotasun” bezalako kontzeptuak; izan ere, ezinbestekoak dira hiztunen, eta, batik bat, hiztun berrien pertzepzioa ulertzeko eta interpretatzen jakiteko. O’Rourke-k eta Ramallo-k “Identities and New Speakers of Minority Languages: A Focus on Galician” (2018) artikuluan hiztun berrien ikuspegiaren berri ematen digute. Hainbat hiztun berriri egindako galdeketen emaitzak dakarzkigute, eta horien arabera, badirudi hiztun berriek autentikotasun falta adierazten dutela hiztun natiboekin jarduten direnean. Are gehiago, hiztun berri horien hizkera hain da estandarraren antzekoa, ezen “liburuantzekoegi” gisa deskribatzen baitute. Haatik, hiztun zaharrek ez dute hiztun berriekiko inongo gailentasunik erakusten, kontrara, hainbatek hiztun berrien zuzentasuna

¹⁰ Hitzok nik neuk galizieratik euskaratutakoak dira

miesten dutela onartzen dute, hiztun zaharren beren hizkera okertzat edota “kutsatutzat” hartuz. Hala ere, O’Rourkek eta Ramallok (2018) emandako emaitzetan aipatzen da badirela galiziera lehenengo hizkuntzat duten belaunaldi berriak, zeintzuek hiztun berrien hizkera estandarrak duen “gazelanatasuna” salatzen eta arbuiatzen baitute. Arbuio horiek, nahita ala nahi gabe, galiziera “ona”, nolabait, jaiotzatik transmititzen dena dela iradokitzen dute, galizieraz gerora jabetzean, galiziera “ona” nekez norberegana daitekeela iradokitzearekin batera. Gainera, eta euskararen kasuan ere ikusi ahal izan dugunez, hiztun berri gehientzat tokian tokiko hizkeretan mintzo diren hiztun natiboak dira eredu nagusia, haien hizkerak nolabaiteko berezko naturaltasuna duela.

4. Kasuon erkaketa: antzekotasunak eta aldeak

Lan honi buru emateko, eta jorratutako atalak aintzat harturik, euskararen eta galizieraren estandarizazio prozesuetan topa daitezkeen antzekotasunak eta aldeak azalratzea da azken atal honen xedea. Hori horrela, estrapolazioak ekidin nahi izan dira, beste zenbait hizkuntza gutxitutan antzekotasunak aurki daitezkeen arren; izan ere, landutako lagina bi hizkuntzek besterik ez dutela osatzen kontuan hartu behar da, eta, beraz, ondorio sendoagoak ateratze aldera, lagin handiago batez zein ikerketa luze eta sakonago batez baliatzea ezinbestekoa litzatekeela argi dago.

Batetik, tradizio idatziari erreparatu behar zaio, beronek goitik behera baldintzatzen baitu aldaera estandar baten eraikuntza. Euskarari eta galizierari eskainitako atal bakoitzaren hasieran tradizio idatziaren inguruko atal bana dago, hizkuntz bakoitzaren tradizio idatziaren nolakotasunak azalduz. Bada bi hizkuntzen artean arrakala handia sortzen duen puntu bat: berankortasuna. 3. atalaren atarian esan bezala, galizierak, edo hobe esanda, galizieraren arbasoa izandako galego-portugesak, etenaldi nabarmena izan zuen Erdi Aroaren ostean, eta ez zen XIX. mendearen bigarren zatira arte berpiztu, mende horietan guztietan ahozkotasunera mugatuta egonik (Carvalho, 1974). Zentzu hertsian, hortaz, galizieraren literatura ez zen berandura arte jaiotzen, inguruko hizkuntza erromanikoen literatur hastapenekin erkatuz behintzat. Ahozko hizkuntza izateak, batetik, dialektoen arteko aldentzea errazten du, ez baitago hizkuntzaren arau finkorik, eta hizkuntzaren beraren aldakortasuna, beraz, handia izaten jarraituko du, hizkuntza bereko hiztunen arteko ulergarritasuna oztopatuz; bestetik, prestigiorik gabeko hizkuntza izatera kondentatzen du, testuinguru informaletara mugatuz, eta, ondorioz, idatzizko izaera ukatuz. Euskararen kasua bestelakoa da, eta inguruko hizkuntza hegemonikoetako literaturekin alderatuta berankortzat har badaiteke ere, esan daiteke

galizieraren literatura baino zenbait mende lehenago jaio zela euskararen tradizio idatzia, edo, hobe esanda, ez zuela etenaldirik izan, ez, behintzat, galizierarena bezain sakona. Horrek idatzizkoarekiko kezka edo ardura sortzea eta mantentzea ekarri zuen hasiera-hasieratik, lan honen lehen atalean aipatu bezala, ugariak izan baitziren norberaren idazkerarekiko ardura adierazi zuten egile eta idazleak, Leizarraga (1571) eta Axular (1643) izanik horren adibide entzutetsuenak. Ondorioz, euskara idatziaren edo inprimatuaren hastapenetatik (*LVP^{II}*, 1545), nabaria eta argia zen estandarizazio baten beharra edo nahia, idazle horietako gehienek estandarizazio kontzeptua bera zer zen jakin gabe ere. Egoera horrek hauspotuko zituen XX. mendeko euskal “bateratzaile” edo “estandargileak”, eta arestian aipaturiko idazleen hainbat haututan oinarrituko ziren (Zuazo, 2005).

Euskararen eta galizieraren estandarizazioak desberdintzen dituen beste ezaugarri bat eragileen arteko adostasun edo desadostasun maila da. Euskarari dagokionez, 2.1.2 atalean azaltzen denez, hainbat iritzi eta ikuspuntu loratu ziren XX. mendean zehar, dialekto baten zein besteren pisua edo garrantzia aldarri izanik, esaterako, Azkue eta bere *Gipzuketara Osotua* (1935) edo Krutwig eta bere lapurtera klasikoaren proposamena:

Halakotz euskararen batarzuna eratzekotz, gehien irasten den hizkalkia on hartu beharr
dugu, ez gehien mintzatzen datekena, literatua hizkuntza batuak, lehenez irakhurtzekotz baitira.
[...] gugarano ethorr den literatur-laburdara da (Krutwig, 1951).

Aitzitik, Arantzazuko Biltzarra gerturatzearekin batera adostasunak lortuz eta desadostasunak lausotuz joan ziren, Baionako Biltzarra izanik horren adibide onena, eta, azkenean, noski, Arantzazun bildutakoek egikaritutako batasuna izanik behin betiko adostasunaren irudi behinena. Azkenean, bide desberdinak zituzten hainbat ibai bokale berean itsasoratu ziren. Galizieraren kasuan, ordea, berrintegrazionisten eta ofizialista edo autonomisten arteko desadostasunek edo ikuspuntu desberdinek bere horretan jarraitu zuten *NOMIG 82* arauen ofizialtzearen ostean -eta oraindik jarraitu ere-. 3.3 azpiatalean adierazi bezala, autonomisten irizpideak gailendu ziren galizieraren kodifikazio “ofizial”ean, berrintegrazionismoari atek itxiz, eta *Associação Galega da Língua* (AGAL) bezalako antolakundeen jarduna ofizialtasun ezera mugatuz.

Bi kasuen arteko aldeak aipaturik, biak batzen dituzten ezaugarriak edo bi estandarizazio prozesuek izan dituzten antzekotasunak aipatzeko unea da orain. Antzekotasunen artean badira bi besteen artean entzutetsuenak edo garbienak direnak. Batetik, akademien sorrerari heldu behar diogu. Galizierak 1906an ikusi zuen bere akademia

¹¹ Bernat Etxeparek idatzi eta argitaratutako *Linguae Vasconum Primitiae* (1545)

egi bilakaturik, hainbat urtetako ahaleginek hauspoturik (Alonso, 1988). Euskarak eta euskal eragileek hamahiru urte gehiago itxaron behar izan zituzten beren Akademiaren sorreraren lekuko izateko, 1919an sortu baitzen Euskaltzaindia, beste hizkuntzen akademiak bezalaxe, euskararen arautzeaz, sustapenaz eta gordetzeaz arduratuko zen akademia izanik. Auzi honetan deigarria da bi hizkuntzek akademia bana izateko itxaron behar izan zuten denbora luzea, inguruko hizkuntza hegemonikoekin alderatuz behintzat. Bide batez, ulergarria da fenomeno hau, gaztelaniaren eta frantsesaren akademiak hainbat mende lehenago sortuak zirela aintzat harturik. Akademien berankortasunarekin batera aipatzekoa da aldaera estandarren berankortasuna ere, euskara batua 1960ko hamarkadan eta galiziera estandarra 1980ko hamarkadan gorpuztu zirela kontuan hartuta. Hori horrela, aldaera estandar horiek ezartzeko eta gizartean errotzeko denbora tarte erlatiboki laburra izan da gaur arte, berriz ere, estatuek babestutako hizkuntzen estandarrek izandako ibilbide luzearekin erkatuz -esan gabe doa, frantsesa eta gaztelania dira horiek-.

Amaitzeko, aipatzekoa da galizieraren eta euskararen estandarizazio kasu bietan jazotzen den fenomeno deigarria bat: hiztun berrien pertzepzioa. Bietan ala bietan errepikatzen diren patrioiak baitaude, autoritate eta autentikotasun bezalako kontzeptuak ardatz izanik. Urlak, Amorrortuk, Ortegak eta Goirigolzarrik (2018) adierazi bezala, hiztun berriek, kasu gehienetan behintzat euskara batua darabilte, autoritate falta nabaritzen dute tokian tokiko hizkerak erabiltzen dituztenen aldean, horiek autentikotasun eta autoritate handiagoa izanik. Galiziara itzuliz, patrioi berdina errepikatzen dela ikus dezakegu, O'Rourkek eta Ramallok (2018) esaten dutenez, "liburuantzekoegi" gisa ikusten dute hiztun berriek beren galiziera, tokian tokiko hizkuntzei, eta, beraz, hiztun "zahar"rei, haiek ez daukaten ustezko naturaltasun bat esleituz.

5. Ondorioak

Lan honetatik atera daitezkeen ondorioak garbiak dira: batetik, hizkuntza gutxitua izateak erabat baldintzatzen du hizkuntza horren beraren estandarizazioa, era argiengan jendartearen iritzian islatuta geraturik -gogora ekartzekoak lan honen 2.4 atalaren amaieran txertatutako D'Andrés Díazen parekatze dialektalaren eta jendeak hizkuntza gutxitu eta hegemonikoen artean egiten duen bereizketaren inguruko hitzak-; bestetik, hiztunen, eta bereziki, hiztun berrien iritzian islaturik ikus daitezke hizkuntza gutxitua izatearen ondorioak,

hiztun horiek autentikotasun falta nabaritzen baitute aldaera estandarrak erabiltzean, lehen aipatutako hiztun “zahar”ren ustezko naturaltasunarekin erkatuz.

Egia da estandarizazio prozesuez ari garenean hainbat direla kasu bakoitzean aintzat hartu beharreko faktoreak, hizkuntza eta hizkuntz komunitate bakoitzaren egoera eta baldintzak askotarikoak izan baitaitezke, eta, ondorioz, nekez estrapola daiteke inongo baieztapenik. Ezin uka, beraz, Gradu Amaierako Lan hau saiakera xume bat baino ez dela izan, euskara eta galiziera oinarri hartuta, hizkuntza gutxituen estandarizazio prozesuan sakontzea xede izan duena.

6. Bibliografía

Agerre, P. (1643). *Guero*. G. Milanges.

Alonso, X. (1988). Prehistoria da Academia Galega. Á procura da norma culta de 1875 a 1905. *Grial*, 1(99), 8-18.

Azkue, R. M. (1935). *Gipuzkera osotua*. Gaubeka'ren Irarkolan.

Carvalho, R. (1974). La constitución del gallego como lengua escrita. *Verba*, 1, 31-40.

D'Andrés Díaz, R. (2018). Lenguas minoritarias y estandarización. In J. Giralt eta F. Nagore (Ed.), *Lenguas minoritarias en Europa y estandarización* (19-45. or.). Prensas de la Universidad de Zaragoza.

Euskal Idazkaritza (1965). Baiona'ko Biltzarraren Erabakiak. *Jakin*, 1(18), 20-28.

Euskaltzaindia (2011). *Historia laburra*.
<https://www.euskaltzaindia.eus/euskaltzaindia/erakundea/historia>

Fernández Rei, F. (2018). A codificación do galego moderno. O papel do Instituto da Lingua Galega e da Real Academia Galega nese proceso. In J. Giralt eta F. Nagore (Ed.), *Lenguas minoritarias en Europa y estandarización* (77-112. or.). Prensas de la Universidad de Zaragoza.

Haugen, E. (1987). *Blessings of Babel, bilingualism and language planning: problems and pleasures*. De Gruyter Mouton.

Kloss, H. (1967). 'Abstand Languages' and 'Ausbau Languages'. *Anthropological Linguistics*, 9(7), 29-41.

Krutwig, F. (1951). Euskara Euskalerrriaren Kultur-Bidea ledin izan. *Gernika*, (14), 8-11.
Kontsulta hemen: Armiarma, Literatur Aldizkariaren Gordailua
(<https://andima.armiarma.eus/ger/ger1403.htm>)

Leizarraga Lermada, J. (1571). *Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria*. Pierre Hautin.

Mitxelena, K. (1968). Ortografía. *Euskera*, 1(13), 203-219.

Monteagudo, H. (2005). Do uso á norma, da norma ao uso (Variación sociolingüística e estandarización do idioma galego). In R. Álvarez eta H. Monteagudo (Ed.), *Norma lingüística e variación* (377-436. or.). Consello da Cultura Galega / Insitituto da Lingua Galega.

O'Rourke, B. eta Ramallo, F. (2018). Identities and New Speakers of Minority Languages: A Focus on Galician. In C. Smith-Christmas, N. P. Ó Murchadha, M. Hornsby eta M. Moriarty (Ed.), *New Speakers of Minority Languages, Linguistic Ideologies & Practices* (91-110. or.). Palgrave Macmillan.

Saco, J. A. (1868). *Gramática gallega*. Imprenta de Soto Freire.

Salgado, B. F. eta Monteagudo, H. (1993). The Standardization of Galician: The State of the Art. *Portuguese Studies*, 9, 200-213.

Seminario de Estudos Galegos. (1933). *Algunhas normas pra a unificación do idioma galego*. Nós.

Seminario de Estudos Galegos (1936). *Engádega: as normas pra a unificación do idioma galego*. Nós.

Urla, J., Amorrortu, E., Ortega, A. eta Goirigolzarri, J. (2018). Basque Standardization and the New Speaker: Political Praxis and the Shifting Dynamics of Authority and Value. In P. Lane, J. Costa eta H. de Korne (Ed.), *Standardizing minority languages*.

Competing ideologies of authority and authenticity in the global periphery. (24-46. or.). Routledge.

Villasante, L.(1968). Batasunari buruz Bibliografia, *1*(13), 145-151.

Villasante, L. (2023). *Azkue Aberasturi, Resurrección María*. Auñamendi Entziklopedia [online]. [Kontsulta data: 2023ko apirilaren 2a]. Eskuragarri hemen: <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/azkue-aberasturi-resurreccion-maria/ar-1368/>

Žarko, M. (1993). Standardization in Romance. In R. Posner eta J. N. Green (Ed.), *Bilingualism and Linguistic conflict in Romance* (77-116). De Gruyter Mouton.

Zuazo, K. (1998). Euskalkiak, gaur. *Fontes Linguae Vasconum: Studia et documenta*, *1*(78), 191-233.

Zuazo, K. (2005). *Euskara batua, ezina ekinez egina*. Elkar.

3/1983 Lege organikoa, ekainaren 15ekoa, hizkuntza normalizazioari buruzkoa (1983ko ekainaren 16ko EAO¹², 84. zk)

¹² Estatuko Aldizkari Ofiziala